

2014ko URTARRILAREN 31ko EBAZPENA, UPV/EHUko GERENTZIARENA, "I. TALDEKO (APLIKAZIOAK) INFORMATIKA-TEKNIKARIEN" LAN-POLTSA HANDITZEKO HAUTAPEN-PROZESURAKO DEIALDIA EGIN, ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ALDI BATERAKO PREMIAR ESTALTZEKO.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak AZPri atxikitako funtzioak gauzatzeko pertsona kopuru jakin bat eduki behar du, ezinbestean, une oro; bai lanpostuen zerrenda osatzen duten langileak ordezkatzeko -edo arauz hornitzekoak hornitu artean sortzen diren hutsuneak betetzeko-, bai aldi baterako premiak betetzeko.

Lan-poltsen osaera eta kudeaketari eta kideen antolamenduari buruzko 2010eko martxoaren 26ko Erabakia (2010eko ekainaren 8ko EHAA, 107. zk.) da elementu eragilea, baita tresna antolatzailea ere, eta horretan oinarritzen da aldi baterako enpleguaren kudeaketa-lana.

Aipatutako Erabakia aplikatuta, administrazioak berritu edo osatu egin beharko ditu oraingo poltsak, baldin eta hautagai kopurua nahikoa ez bada aurreikusitako premiei aurre egiteko, edo nahikoa izanagatik, hautagaiek ez badituzte betetzen beharrezko baldintza guztiak. Horretarako, beraz, dagozkion aldi baterako hautapen-deialdiak egingo ditu.

Ondorioz, Gerentzia honek, gobernu-taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko UPV/EHUko Errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko Ebazpen bidez emandako eskuduntzak baliatuta (2013ko otsailaren 13ko EHAA),

HAU ERABAKI DU:

Lehenengo artikulua.- "I. Taldeko (Aplikazioak) Informatika Teknikarien" lan-poltsa handitzeko hautapen-prozesurako deialdia egitea, deialdia arautuko duten Oinarriekin, honako Ebazpen honen I. Eranskin moduan jasotakoekin, bat etorrira.

Prozesu honetan aukeratutako pertsonak hiru Campusetako edozeinetan zerbitzuak eskaintzeko aukera izango dute.

Bigarren artikulua.- Honako Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta beronen aurka Berraztertze Errekurtsoa jarri ahal izango da, hilabeteko epean, Gerentzia honen aurrean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa,

**zuzenean, administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean.
Erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira epe horiek.**

Leioan, 2014ko urtarrilaren 31n


Lore Bilbao Artetxe
UPV/EHUko GERENTZIA



GERENTZIA
GERENCIA
UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA